Apartamentuen diseinua ISEAk eta KREANek egin zuten hasiera batean. Ondoren, ID-Arte (EHU-UPV) Barne Diseinuko 3. mailako ikasleek apartamentuen diseinu zehatzak landu dituzte.



Bideragarritasuna

Proiektuaren bideragarritasuna da oraindik oztopo nagusia. ISEA eta Arrasateko Udala Foru Aldundiko Zaintza eta Gizarte Politiketako sailarekin harremanetan daude Mesedetako Ikastetxeko proiektuan parte hartu dezan.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza ezinbestekoa izango da, bai inbertsio handia delako, bai Hiri Antolamenduko Plan Orokorra aldatu behar delako. Proiektua gauzatzea erabakita ere, lehiaketa publikora atera beharko litzateke, ISEAREN proiektua aukeratu edo ez erabakitzeko. —

Belaunaldi arteko etxekidetzaren garrantzia

Orobengoaren hitzetan, “belaunaldien arteko bizikidetzak komunitarioaren onurak ugariak dira. Adinekoen osasun mentala eta segurtasun sententzia hobetzen laguntzen du, eta gazteei eta bestelako taldeei elkarrekin-tza eta sostengu sare bat eskaintzen die”.

Era berean, “bizipen horrek herritarren erantzukizunari eta jarrera zibikoari buruzko kontzientzia hartzea ere errazten du, eta horrek ekintza komunitarioan jende gehiago inplikatzeko eta partaidetza eta ardura handiagoko elkarteak sortzen laguntzen du”, Orobengoaren ustez.

Kasu guztietan, belaunaldien arteko, elkarlaneko eta autokudeatutako komunitate bat garatzea proposatu dute, balio kooperatibotan oinarrituta, partekatutako eskubideak eta betebeharrak bere gain hartuko lituzkeena eta eraikuntza kolektiboko partaidetza-prozesuen bidez garatuko liratekeena.

Belaunaldien arteko, elkarlaneko eta autokudeatutako komunitate bat garatzea proposatu dute, balio kooperatibotan oinarrituta, partekatutako eskubideak eta betebeharrak bere gain hartuko lituzkeena eta eraikuntza kolektiboko partaidetza-prozesuen bidez garatuko liratekeena



DIGITALIZAZIOA ETA MARKO TEKNOPELAGOGIKO BERRIA

ETORKIZUN KONPLEXUAN BIDEA PROPOSATZEN


Arizmendi Ikastolako marko teknopedagogiko berriaren aurrean *argia pizteko* ardura dute Beñat Irazabal, Aritz Oianguren eta Ibone Arejolaleiba irakasleek. Arlo korapilatsua dute esku artean, digitalizazioaren gai arantzatsu eta konplexua. Bidegurutzean beti, bide bat edo bestea hartzera derrigortuta. Arizmendi Ikastolak marko teknopedagogiko berriaren inplementazioan hartuko dituen erabakien eta jorratuko duen estrategiaren inguruan aritu gara Beñat, Aritz eta Ibonerekin.

GORKA ETXABE

2010ean ekin zion Arizmendi Ikastolak digitalizazioaren arloari. Eusko Jaurlaritzak Eskola 2.0 egitasmoa martxan jarri bezain pronto, Arizmendi Ikastolak ikasgelak egokitu zituen, irakasleen formakuntza sustatu zuen, ikasleen ordenagailuak eskuratu zituen eta askotariko baliabideak bideratu zituen. Moodle ikasketa plataforma digitalaren aurreneko urteak izan ziren, analogikotik digitalerako jauziaren sasoia, era orekatuan burutu zena, Euskal Herriko beste ikastola askori aurre hartuz eta nolabait besteentzat erreferente bilakatuz. Ordutik Arizmendi Ikastolako 12 guneek sarean funtzionatu izan dute, askotariko edukia partekatuz, era bateratuan, digitalizazioaren alderdirik positiboena aprobeztatuz.

Gaurko ekosistema

Gaur gaurko beharrak identifikatu eta marko teknopedagogiko berria garatzen ari da uneotan Arizmendi Ikastola. Hezkuntzaren eta bizipenen bitartez, pertsona euskalduna, barne sendotasuna duena, kooperatiboa, erabakitzaile-ekintzailea eta eraldatzailea hazi eta hezi nahi du Arizmendik. Arlo teknologikoan eta digitalizazioan ahaldundutako ikaslea. Irizpideduna eta erabakiak hartzeko eta hausnartzeko erremintak izango dituena. Helburua ez da nolana hikoia. “Ez da soilik testu-prosezadore bat erabiltzen irakastea. Erabilerak kontzientea sustatu behar dugu. Erabileran oinarritu gara orain arte, baina alfabetatzea landuko dugu,



ahaldundu nahi dugu ikastolako komunitatea bere osotasunean. Ikasle, irakasle, zerbitzu orokorretako lan-kideak eta gurasoak, ahalik eta koherenteena izan behar da gure markoa”. Hala diote, Beñat Irazabal, Ibone Arejolaleiba eta Aritz Oianguren.

Digitalizazio etiko eta arduratsuaren bidean

Gai konplexua da, korapilatsua eta arantzatsua, eta IKT arduradunek argi dute hobe dela *iceberg*-aren muturra izatea baino, erabaki hausnartuak hartzea, bat-batekoari eta inprobisaziori lekuri utzi gabe. “Digital esparru zabalaren erabilera etikoa eta arduratsua sustatu behar dugu”. Horretarako esparruan dauden aditu eta espezialistekin dihardute lanean, foro ezberdinetan eta formazioak jasotzen.

“Adituen irizpideak hartu behar ditugu aintzat, ebidentziak nahi ditugu. Datuak. Gure norabidea zein izan behar da? Ebidentzia zientifikoetan oinarritu nahi dugu gure eskaintza. Zertan lagunduko digu digitalizazioak gure ikasleen formazioan? Markoak horri erantzun dio. Erremintak jar ditzagun gure markoaren esku. Goazen entzutera entzun beharreko adituei”. Teoria argi jakinda, praktikara eramanez nahi dute orain proposamena.

Instrumentalismoan ezin erori

Gaur gaurko paradigmatari erantzun egokia ematea ezin bestekoa dela diote hirurek. “Tresna erabiltzea ez da nahikoa. Ahaldundu behar dugu komunitatea ondo

erabiltzeko tresna. Ezin dugu ukatu errealitatea. Gaur gaurko tekno-adikzioa ezin dugu baztertu. Osasun mentalean izan ditzakeen ondorioak aztertzea tokatzen zaigu. Gure erantzukizuna da, ikastolaren erantzukizuna, eta horren aurrean orekaz jokatu behar dugu. Etorkizuneko Euskal Herria digitala izango da eta prestatu beharra daukagu”.

Arizmendi Ikastolako IKT arduradunentzat, euskal identitateari erantzuneko ekosistema digitala eraiki behar da. Zaila dela jakitun badira ere. Ikastolen elkarteak, Jaurlaritzak, eta gainerako aktoreek digitalizazioari modu kolektiboan erantzun behar diotela uste dute, burujabetza digitala sustatuz. Hala, Europako kompetentzia digitalen markoa ona dela diote, baina hori Euskal Herrira eta ikastolen kolektibora aterratzeko ahalegina egin beharko dute.

Nola lurreratu orain digitalizazioa eta marko teknopedagogikoa?

Arizmendi Ikastolan ekosistema digitalean irizpideak ezarri nahi dituzte, hausnarketari erantzuna eman nahi diote, ukigarria, dokumentu formala sortu nahi dute denok, kolektiboak osotasunean irizpideak izan ditzan. “Oinarri filosofikoa behar dugu. Onarpen bat behar dugu, dugun errealitateari erantzuneko markoak. Tresnak eman behar dizkiegu gure kolektiboko ordezkari ezberdinei erabakiak har ditzaten. Irizpideak, dekalogoak, dokumentuak eman behar dizkiegu ikasleei, irakasleei, gurasoei. Horretan ari gara”. Hala ari dira, erabakiak hartzeko faktore ezberdinak aztertuz, eta asmoa da 2025ean dokumentu, dekalogo edo txostena definitzea, nahiz eta jakitun izan, dokumentu bizia izango dela, moldagarria, eta aldagai askoren menpe egongo dena. “Izarkomek (Euskal Herriko Telekomunikazio Kooperatiba) egin zuen iaz erabilera gida. Antzeko zerbaitekin egin beharko dugu”.



ADIMEN ARTIFIZIALA, aukerak eta mehatxuak

“Profesional moduan, badagokigu, distantzia hartu eta edozein tresnaren aurrean, ezer inplementatu aurretik, ondo aztertu behar dugu. Adimen Artifiziala tresna lez, era formalean, sartuko da irakaskuntzan, baina aztertu beharko dugu, erantzukizunetik, etikatik eta arduratik, horiek nola inplementatu behar diren. Erabilera egokia sustatu beharra dago arlo horretan ere, aukera ugari eskaini ditzake-eta, baina baita mehatxuak ere. ikuspegi zabala behar dugu. Argi dago Adimen Artifizialak erreminta oso interesgarriak eskaintzen dituela, baina gure komunitatean eragingo dituen onurak, kalteak eta aldaketa sakonak aztertu behar ditugu”. —

ARRISKU KARDIOBASKULARRA [AKB] BADAKIZU ZEIN DEN ZUREA?

Gaixotasun kardiobaskularrak [GKB] dira, batez ere miokardioko infartua eta iktusa, heriotza eta desgaitasunaren munduko kausa nagusia. Espainian, heriotza-tasaren lehen arrazoa dira, eta arrazoi horregatik ia 8.000 emakume gehiago hiltzen dira urtero, tumoreen eta covid19-aren aurretik, baita horren adierazpen kliniko handieneko urtean ere.

MARISA SECO LABORATEGIKO ZUZENDARIA. OSARTEN, KOOPERATIBA ELKARTEA

Hala ere, GKBek eragindako heriotza goiztiarren %80 saihestu daiteke, Osasunaren Mundu Erakundearen arabera, batez ere bi-zi-ohitura osasungarriari jarraituz, eta horien funtsezko zutabeak elikadura eta jarduera fisikoa dira. Arrisku kardiobaskularraren ebaluazioa, edo arrisku kardiobaskularra, prebentziorako lehen urratsa da, eta osasun-langileek erabiltzen dituzten eta sarean eskuragarri dauden AKBaren kalkulagailu batzuen bidez lor daiteke. K kalkulagailu horiek 10 urtean gertaera kardiobaskular bat izateko probabilitatea kalkulatzan dute, hainbat datu erabiliz (adina, sexua, tentsio arteriala, tabakismoa eta kolesterolaren balioak, HDL kolesterola, LDL kolesterola edo HDL kolesterola ez den kolesterola, erabilitako kalkulagailuaren arabera).

Norberaren AKBa ezagutzea ez da bakarrik beharrezkoa bihotzeko gertaera bat izateko probabilitatea baloratzeko eta hura murrizteko estrategia ezartzeko; beharrezkoa da, halaber, odol-analisi batean sartutako proba batzuen emaitzak interpretatzeko. Hala, laborategiko txostenetan ohikoa da testu bat aurkitzea, bai HDL ez den kolesterolerako, bai LDL kolesterolerako, pertsonaren AKBaren arabera balio desiragarriak adieraziz. Osartenek urtero langileei egiten dien azterketaren kasu zehatzean, informazio hau agertzen da:

Srm-EZ-HDL KOLESTEROLA mg/dL [<160]

Balio desiragarriak, pertsonaren arrisku kardiobaskularra [AKBa]ren arabera:

- 2. mailako prebentzioan dauden eta AKB oso altua duten pertsonak: <85 mg/dL
- AKB handia duten pertsonak: <100 mg/dL
- AKB moderatua duten pertsonak: <130 mg/dL

Srm-LDL KOLESTEROLA mg/dL [<116]

Balio desiragarriak, pertsonaren arrisku kardiobaskularra [AKBa]ren arabera:

- 2. mailako prebentzioan dauden eta AKB oso altua duten pertsonak: <55 mg/dL
- AKB handia duten pertsonak: <70 mg/dL
- AKB moderatua duten pertsonak: <100 mg/dL
- AKB baxua duten pertsonak: <116 mg/dL

Bihotzaren Espainiako Fundazioaren PECS programak (Enpresa Kardioosasungarrien Programa) proposatzen duen bezala, enpresek osasun kardiobaskularra prebenitu eta sustatzeari ekin behar diote, barne-kohesiorako eta enpresa-produktibitaterako ardatz gisa, eta, aldi berean, gizarte osoari mesede egiten dion aurrerapen-bektore gisa

Ikus dezagun adibide batekin nola interpretatu: pertsona batek 154 mg/dL-ko HDL ez den kolesterola badu, egokia dela pentsa dezake, erreferentziazko balioa (160 mg/dL) baino txikiagoa baita. Hala ere, pertsona horrek AKB moderatua badu (arrisku-kalkulagailuarekin edo beste tresna batekin lortua), balio desiragarria ez da 160 mg/dL baino txikiagoa izango, 130 mg/dL baino txikiagoa baizik. Beraz, hasieran zuzena zela uste zen emaitza (154 mg/dL) altua da pertsona horrentzat, eta komenigarria litzateke medikuarengana joatea emaitza objektiboa lortzeko beharrezko neurriak ezartzeko.

Argi dago, beraz, AKB datua ezagutu behar dela txosten analitikoaren emaitza interpretatu ahal izateko, eta langileak bere enpresako zerbitzu medikora jo ahal izango du bere AKB kalkulatu diezaioten.

Bihotzaren Espainiako Fundazioaren PECS programak (Enpresa Kardioosasungarrien Programa) proposatzen duen bezala, enpresek osasun kardiobaskularra prebenitu eta sustatzeari ekin behar diote, barne-koehesorako eta enpresa-produktibitaterako ardatz gisa, eta, aldi berean, gizarte osoari mesede egiten dion aurrerapen-bektore gisa. —



Norberaren AKBa ezagutzea ez da bakarrik beharrezkoa bihotzeko gertaera bat izateko probabilitatea baloratzeke eta hura murrizteke estrategia ezartzeko; beharrezkoa da, halaber, odol-analisi batean sartutako proba batzuen emaitzak interpretatzeko

ELKARTASUN KEINU BAT, EURO BATEN TRUKE

Usadio bihurtuta dago Laboral Kutxaren egutegia gure sukalde, ikastetxe, lantegi edo bulegoetan zintzilikatzea.

Urte osoko konpainia, urte osorako mezu grafikoekin, gizartearen erronka batzuk aintzat hartuta. Aurten, 12 artistaren ilustrazio ederrekin osatu du Laboral Kutxak 2025eko egutegia; komunitate oparoagoak, berdinzaleagoak eta jasangarriagoak eraikitzeko balioen inguruan.

Usadioari elkartasuna ere batuko zaio gainera. Egutegia eskuratzean, euro bateko ekarpen solidarioa egin ahalko baitzaio Mundukideri, eta emandako euro bakoitzeko, Laboral Kutxak beste bat jarriko du.

Bildutako dirua Mundukideren Mozambikeko programara bideratuko da. Pobrezia handiko herrialde horretan, azken 20 urteetan, nekazari-familiekin dihardu lanean Mundukidek. Programaren bidez, nekazaritza-teknika, labore eta merkatu berriak probatea lortzen dute familiek; diru-sarrerak eta bizi-baldintzak hobetzeko. —



Mundukideri emandako 1 €-eko bizum bakoitzeko, LABORAL Kutxak beste euro bat emango dio GKEari.

 1 € 00989



MLAKOOP kooperatiban soluzio integralak sortzen dituzte talentua eta formakuntzaren esparruan. Negozio berri bat garatzen ari dira talentuaren erakarpenaren eta garapenarekin lotuta, eta negozio horren garapenean buru-belarri lanean ari da Maria Ruiz.

USOA AGIRRE

Maria Ruiz

BERRIKUNTZA ETA NEGOZIO GARAPENKO ARDURADUNA MLAKOOP-EN

“Injustiziak gorroto ditut”



Ze erronka duzu eskuartean?

Talentuaren erakarpenaren negozio honetarako guk kudeatzen dugun Universidad Mondragón Mexico gakoa da, erakarriko dugun talentu profesionala LATAMetik datorrelako. Gure helburua da enpresekin lan egitea bertako profil profesionalak (talentua) hemengo enpresetara ekartzeko. Lan taldea orain dela urte eta erdi hasi zen gai honetan eta ni aurtengo irailen integratu nintzen euren lantaldean. Denbora gutxi izan arren, *feedbacka* oso ona izan da. Lantalde oso ona daukagu, bai MLAKOOPen eta baita Universidad Mondragón Mexicon ere. Negozio honetatik ikusi dira beste negozioetara eramán daitezkeen beste erronka eta indargune batzuk ere.

Gaua ala eguna?

Eguna. Pandemian mugatuta egon ginen eta denok behartuta egon ginen egunez planak egitera, eta horrek pixka bat indartu zuen eguna aprobetxatzeko ohitura. Asteburuan paseo bat eman, poteotxo bat eta bazkari on batekin borobildu. Hori da niretzat planik ederrena.

Aperitiboa edo bazkalostea?

Aurreko galderarekin lotuta, aperitiboa nahiago.

Gazia ala gozoa?

Gazia. Tortilla pintxoa munduko onena da niretzat.

Dantzatu ala abestu, edo biak?

Biak oso gustuko ditut, baina esaten didate oso gaizki abesten dudala. Hortaz dantzatzearekin geratuko naiz.

Filmak zineman edo plataforma digitaletan?

Zinema aretoetan nahiago. Txikitan gurasoekin asko joaten nintzen eta aukera dudán guztietan joaten naiz zinemara gaur egun ere.

Liburuak paperean edo digitalean?

Paperean, istorioan murgiltzeko aukera ematen dit.

Uda edo negua?

Uda. Hondartza asko gustatzen zait eta baita beltzaran jartzea ere (barreak).

Trena ala hegazkina?

Hegazkinez urrunago iritsi naiz eta hegazkina aukeratu nuke.

Audioak edo idatzizko mezuak?

Audioak. Eta gainera podkastak izaten dira. Laguneekin bizitzako puntu honetan zaila da elkartzea eta horregatik harremanetan jartzen garen bakoitzean podkastak izaten dira.

Lanerako tresna bat.

Ordenagailu eramangarria.

Erronka pertsonal bat?

Gaur egun daukadan zoriontasuna, poza, lasaitasuna eta ongizate sentsazio hori betirako izatea.

Erronka profesionala?

Daukagun talentuaren erakarpen eta garapenarekin lotutako negozioa jasangarri eta arrakastatsu egitea.

Kooperatiba bat?

MLAKOOP, noski, zalantzarik gabe.

Ohitura on bat?

Egunero paseotxo bat ematea, berandu bada ere.

Bizitzarako aholku bat?

Ez arduratu kontrolatu ezin duzun gauza horiengatik. Eta, zorionez, bizitzan ezin dela dena planifikatu.

Amets bat.

Injustiziak gorroto ditut, bai maila profesionalean eta bai maila pertsonalean ere. Nire ametsa da injustizia ezaz aritzen diren guztientzat ondorioak egotea. —



Gehiago egiteko gaitasuna badugu

Gure artean ez da ezohikoa munduan “hemen baino hobeto” inon gutxi bizi daitekeela esatea. Eta datuei begiratzuz gero, ideia nahiko zuzena dirudi.

Ekonomiari dagokionez, gure artean, biztanleko barne produktu gordina 40.000 bat eurotako da, eta horrek munduko lurralde aberatsenen artean, ia %10aren barruan kokatzen gaitu. Hau da, munduan 7.200 bat milioi pertsonak dute guk baino gutxiago eta 800 milioi guk adina edo gehiago.

Hezkuntzan berdintsu. Euskal Herriko helduok, batzaz beste, 11 urte pasa egin ditugu eskolan, eta munduan eskola urte gehien izan dituzten %20aren artean gaude.

Eta osasun kontuetan, zaila hobeto egotea. Izan ere, gure artean dugun 83 urteko bizi itxaropenak goiko %5ean kokatzen gaitu. Munduan bizi garen pertsona guztien %95ak ez du guk adinako bizi itxaropenik. Hori da marka!

Hala ere, munduko biztanle guztien artean bizi bal-

dintza onenak dituztenen artean egoteak ez du esan nahi beste guztiak ezinean bizi direnik. Ez da horrela.

Non gauden ohartuta, “hemen baino hobeki inon gutxi” esaldia bezain ohikoa den beste kontu bat datorkigu burura: herri bereziki solidarioa garen ideia. Hori ere sarri errepikatzen da gure artean.

Zer diote datuek?

Elkartasuna modu askotan gauzatu daiteke. Gure kasuan, munduko aberatsenatarikoak izanik, zentzuzkoa dirudi gure elkartasuna gauzatzeko bide natural bat izatea guk baino askoz bizitza zailagoa dutenekin elkarlanean aritzea.

Euskal Herriko erakunde publikoek garapenerako lankidetzara bideratzen duten dirua batu eta herritar kopuruarekin zatituz gero, ikusiko dugu urtean 30 euro bideratzen direla garapenerako lankidetzara euskal herritar bakoitzeko.

30 euro. Ezin esan asko denik. Akaso, norbanako edo enpresa bezala bideratzen dugu gehiago gure elkartasuna? Kasu honetan, datuak aurkitzea zailagoa da, baina Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeek emandako datuak aintzat hartuta, euskal herritar bakoitzak 10 euro ematearen baliokidea da elkar-tasun hori.

40 euro denera, beraz. Biztanleko eta urteko. Zer pentsatua ematen du. Hori al da gure gaitasun guztia? Munduko ia %10 aberatsenaren artean egonda eta biztanleko 40.000 eurotako barne produktu gordina izanda. 40 euro urtean. Hori al da egin nahi dugunaren neurria? Gure ahaleginaren isla? Gure elkartasunaren tamaina?

Oraintxe ari gara erakunde eta enpresatan datorren urterako aurrekontuak prestatzen. Norbanakoentzat ere, urte amaiera joandako urtearen balorazioa egin eta datorren urterako egitasmoak finkatzeko unea izan ohi da, begirada jasotzeko garaia.

Izan ere, egunerokoan gure kontuetan dugu murgilduta burua: lankidearekin izan dugun berriketaldia, umearen urtebetetzea, datorren astebururako plana, biloba ikastolatik jaso beharra, biharamuneko bazkaria, etab. Eta diru kontutan ere, antzera gertatzen zaigu: hipoteka, erosketak, dentista, autoa, unibertsitateko matrikula, negurako berokia...

Baina, ezin da beti burua makurtuta oinetara begira ibili. Bidea erabakitzeko tarteka begirada jaso beharra dago. Non gaude? Norantz goaz? Zer bide hartuko dugu?

Aurkeztutako datuen helburua horretan laguntzea izan da. Munduan non gauden hobeto kokatzen laguntzea, denontzat mundu hobeto bat eraikitzeko lanean, gure benetako gaitasunekin bat datorren ekarpena egiten laguntzea. —

Elkartasuna modu askotan gauzatu daiteke. Gure kasuan, munduko aberatsenatarikoak izanik, zentzuzkoa dirudi gure elkartasuna gauzatzeko bide natural bat izatea guk baino askoz bizitza zailagoa dutenekin elkarlanean aritzea

MUNDUKO BIZTANLERIA OSOA HIRU TALDE NAGUSITAN SAILKA DAITEKE



Gutxi gorabehera, **1.000 milioi** gara oso ongi bizi garenak: 80 urte inguruko bizi itxaropena, dozena bat urteko eskolaratzea eta munduko beste edonora denbora pasa joateko aberastasuna.



Beste **6.000 milioi** pertsona inguru, egunerokoarekin nahikoa lan izanda ere, behar gorrian bizi ez direnak: 70 urte inguruko bizi itxaropena, zazpi bat urteko eskolaratzea eta etxea, janaria, arropa eta gutxieneko beharrezko gauzak bermatuta.



Azkenik, beste **1.000 milioi** pertsonak gertutik bizi dute gosea, gaixotasuna eta haur eta gazteen heriotza.

LA CUMBRE DEL FUTURO DE LA ONU

UNA BRÚJULA PARA LA SOSTENIBILIDAD GLOBAL

En septiembre de 2024, la Organización de las Naciones Unidas [ONU] celebró la **Cumbre del Futuro**, un evento clave para rediseñar las respuestas globales a los desafíos del siglo XXI. Este encuentro reunió a líderes mundiales, expertos, sociedad civil y empresas para trazar un camino hacia un futuro más equitativo, sostenible y resiliente.

IBON ANTERO

La Cumbre del Futuro busca ser un catalizador para **transformar las estructuras de gobernanza global**, dotándolas de mayor legitimidad, transparencia y capacidad de acción.

La CSRD equipara la información sobre sostenibilidad con la información financiera y establece que las empresas deben presentar su información no financiera de acuerdo con unos estándares comunes. El Grupo Asesor Europeo de Información Financiera (EFRAG) ha desarrollado los *European Sustainability Reporting Standards* (ESRS), que son el nuevo marco de estándares para la presentación de información de sostenibilidad. Estos estándares buscan proporcionar datos fiables y comparables a inversores, sociedad y otras partes interesadas.

COP29 Conferencia de Cambio Climático de NNUU

Otra importante conferencia que se acaba de celebrar es la COP29 en Bakú (Azerbaiján), 29ª Conferencia de las Partes de la Convención Marco de las Naciones Unidas sobre el Cambio Climático, cuyo objetivo es coordinar las acciones de los países para limitar el calentamiento global por debajo de 1,5 °C, centrándose en compromisos concretos y medidas como la financiación climática, la transición energética y las contribuciones determinadas a nivel nacional.

Recién concluida la COP29, podemos concluir que se han alcanzado acuerdos, pero con una notable falta



de ambición. Lejos de los 1,3 billones de dólares al año propuestos por los países en vías de desarrollo para la financiación climática, se ha llegado a un acuerdo de 300.000 millones de dólares al año, aunque el acuerdo insta a aumentar los fondos hasta llegar a los 1,3 billones anuales para 2035. Otro avance destacado se centra en el Artículo 6 del Acuerdo de París, por el que se prevé crear un mecanismo de mercado de carbono regulado por Naciones Unidas, diferente al mercado voluntario de carbono, el cual es gestionado por organizaciones privadas.



El papel clave de las empresas en este tipo de cumbres

Las empresas, por su capacidad de innovación y recursos, desempeñan un papel fundamental y son un actor clave para impulsar el progreso hacia un desarrollo más inclusivo, sostenible y justo.

En Cumbre del Futuro se podría destacar entre otras, la rendición de cuentas: en la Acción 55 refuerza la necesidad de que las empresas no solo contribuyan a resolver los desafíos globales, sino que también asuman una mayor responsabilidad y rendición de cuentas en la implementación de los marcos de las Naciones Unidas.

Por otro lado, en la reciente COP29, la contribución de las empresas para la transición a una economía verde se dirige hacia los siguientes aspectos:

- **Innovación tecnológica:** Desarrollar soluciones que reduzcan las emisiones y aumenten la eficiencia energética.
- **Colaboración pública-privada:** Alianzas con gobiernos y ONGs para implementar proyectos climáticos ambiciosos y de escala.
- **Inversión en sostenibilidad:** Canalizar capital hacia energías renovables y proyectos de adaptación climática. —

Entre sus áreas prioritarias destacan

Cambio climático y desarrollo sostenible: Promueve medidas para mantener el calentamiento global bajo 1,5°C, aumentar la financiación para energías renovables y apoyar a los países en desarrollo en su transición energética.

Paz y seguridad global: Incluye un compromiso histórico con el desarme nuclear, la reforma del Consejo de Seguridad y la regulación del uso de tecnologías militares emergentes, como las armas autónomas.

Cooperación digital y gobernanza tecnológica: Propone garantizar el acceso global a internet y establece lineamientos éticos para la inteligencia artificial y el manejo de datos, fomentando un entorno digital seguro y equitativo.

Juventud y generaciones futuras: Presenta por primera vez una *Declaración sobre Generaciones Futuras*, asegurando que las decisiones globales consideren su impacto a largo plazo.

Derechos humanos e igualdad de género: Reafirma el compromiso con los Derechos Humanos, la equidad de género y la protección de defensores de derechos.

El objetivo es coordinar las acciones de los países para limitar el calentamiento global por debajo de 1,5 °C, centrándose en compromisos concretos y medidas como la financiación climática, la transición energética y las contribuciones determinadas a nivel nacional



AZAROAK 25

EMAKUMEAREN AURKAKO INDARKERIA DESAGERRARAZTEKO NAZIOARTEKO EGUNA

Urtero, azaroaren 25ean, Indarkeria Matxistaren Aurkako Nazioarteko Eguna ospatzen da. Nazio Batuen Erakundeak 1999an aldarrikatu zuen data hori, emakumeen eta neska gazteen aurkako indarkeria-mota guztiak desagerrarazteko beharraz sentsibilizatzeko.

Emakumeen aurkako indarkeriak forma ugari hartzen ditu, fisikotik eta sexualetik hasi eta psikologiko eta ekonomikoraino. NBE Emakumeak erakundearen arabera, munduko hiru emakumetatik batek indarkeria motaren bat jasan du bizitzan zehar. Gainera, arazo honek ez die biktima zuzenei bakarrik eragiten, baizik eta eragin sozial eta ekonomiko esanguratsua sortzen du, munduari BPG globalaren %2 kostatzen zaiola kalkulatu.

Kooperatibok, eraldaketa-eragile gisa, funtsezko zeregina dugu fenomeno hori prebenitzeko eta borrokatzeko. Alde batetik, edozein jazarpen edo diskriminazio motarekiko zero tolerantzia politikak inplementatuz, lan eremu seguruak sortuz. Baina, era berean, genero-berdintasunari buruzko prestakuntza eta indarkeriari buruzko sentsibilizazioa funtsezkoak dira jokabide kaltegarriak desagerrarazteko eta kontzientzia sortzeko.

Aurten, 2024an, 35 Kooperatibetako 98 parte-hartzaileekin bi prestakuntza egin dira. Talde horiek bigarren edizio bat izango dute 2025ean, sortu den eskaera eta interesagatik. Prestakuntza bat kooperatibetako berdintasun batzordeetan parte hartzen duten pertsonen zuzenduta dago, eta beste prestakuntza bat kooperatibetako jazarpen eta prebentzio protokoloetako aholkularitza konfidentzialesak kide diren pertsonentzat da.

Genero-berdintasuna sustatzea eta indarkeriaren aurka jardutea, betebeharrak ez ezik, gizarte bidezkoago eta jasangarriago bat eraikitzeko aukera ere bada.


Indarkeria matxista ukatzea haren alde egitea da

Batu gaitezen geldiarazteko

EMAKUMEEN AURKAKO
INDARKERIARI EZ
NO A LA VIOLENCIA
CONTRA LAS MUJERES

azaroak
25

Emakumeen kontrako
Indarkeria Desagerrarazteko
Nazioarteko Eguna

900 840 111 
DEITU, LAGUNDUKO ZAITUGU



araba   

 Bizkaia

 GIPUZKOA

 EUDE

Azaroaren 25ean, eta egunero, emakumeenganako indarkeriarik gabeko mundu baten aldeko borrokan rol aktiboa hartu behar dugu kooperatibok. —

Javier Erdozia hil da

33 urtez egin zuen lan talde kooperatiboan eta bera izan zen bere lehen idazkari nagusia.

Javier Erdozia Landa azaroaren 23an zendu zen, 89 urte betetzeko bezperan. Lekeitiar honek harreman estua izan zuen talde kooperatiboarekin, izan ere 1967an, ekonomia-aholkulari lanetan hasi zen Laboral Kutxan (Caja Laboral Popular), Arrasateko bulego zentraletan, Jose Maria Arizmendiarrietak eskatuta. Kreditu-kooperatiba horretako bazkide izan zen, harik eta 1992an, Mondragon Corporación Cooperativa joan zen arte. Hantxe jubilatu zen, 2000. urteko abenduan. Laboral Kutxan askotariko lanpostuetan ibiltzea egokitu zitzaion: ekonomia-aholkulari, zuzendari nagusiorde, kontseiluko idazkari, besteak beste. Horrez gain, hainbat kooperatibatako batzordekide ere izan zen: Ikerlan, LagunAro, Arrasateko Eskola Politeknikoa, Lea-Artibai Eskola Politeknikoa, Eroski...

Kooperatibista eta euskaltzalea

1947ko urrian, apaiz-ikasketak hasi zituen Saturrarango seminarioan eta hantxe areagotu zitzaion bere aitagandik zetorkion euskaltasunaren kontzientzia, batik bat, Andoni Basterretxe irakaslearen eraginez. Bertan bost urte egin ondoren, Gasteizko seminariora jo zuen Filosofia ikasketak egitera. 1953an, seminarioa utzi, eta *preuniversitario* zeritzon titulua atera zuen Valladoliden.

Urte horretan hasi zen futbolekin, eta Bizkaiko jubentzen selekzioarekin Espainiako txapelketa irabazi ondoren, jubentzetako munduko txapelketa irabazi zuen Espainiako selekzioarekin 1954an. Futbolari profesional gisa aritu zen Deportivo Alavesen, ligako lehen mailan. Talde horretan hiru denboraldi egin ostean, Felguera, Sestao Sport eta Indautxu taldeetan jokatu zuen, bigarren mailan. Garai horretan, atera zuen Zuzenbideko lehen ikasturtea, Oviedon, eta Ekonomia Zientziak ikasten hasi zen. 1961ean utzi zuen futbola,

MONDRAGONen lehen idazkari nagusia izateaz gain, hainbat kooperatibako batzordekide ere izan zen: Ikerlan, LagunAro, Arrasateko Eskola Politeknikoa, Lea-Artibai Eskola Politeknikoa, Eroski...



lesio latz baten ondoren, ikasketei lehentasuna eman behar ziela erabaki zuelako.

Behin ikasketak amaituta, Arregi SA taldean hasi zen lanean, Gasteizen, eta 1967an batu zen talde kooperatibora. Bete-bete sinesten zuen hezkuntza eta eredu kooperatiboa dela pertsona libre egiteko eta gizartea eraldatzeko egokiena, eta hori buruan harturik, bere lagun arrantzaleak euren ogibidearen jabe izan zitezen eragin zuen: 1959. urtean, Rosario arrantzontzia erosi zuten Lekeitioko lagunek (bera tartean) eta kooperatiba antzeko egitura eman zioten. Ondoren, beste arrantzontzi bi egin zituzten: Amandarri (1963) eta Agurtza (1969).

Betidanik izan da euskaltzalea eta euskalgintzari eman nahi izan dio bere denbora, ardura eta indarren zati handi bat. Lanean egindako harremanetatik etorri zitzaion Euskararen Aholku Batzordearen kide izendatzea Mari Karmen Garmendia Kultura sailburua zela. Urte luzez Euskaltzaindiari laguntzen jardun zuen eta, 2003ko urtarrilaren 31tik, euskaltzain urgazlea izan da.

Euskal Herria, euskara eta euskal kultura izan dira bere bizitzaren ardatzetako bat, baina baita bere familia eta lagunak ere. 1967an ezkondu zen Maria Luisa Leturiarekin, eta lau seme-alaba izan zituzten. Bizitzako erronkei aurre egiteko ezinbestekoa izan zuen emaztearen indarra eta garra. Biek batera jakin zuten, etxeok ez ezik, inguratzen zirenak ere ondo hartzen.

Dagoen tokian dagoela, emaztearekin kontu-kontari edota lagun artean kantatzen eta pilotarekin gozatzen egongo da. Hala bedi. —

ABESBATZAK, EUSKAL TRADIZIOTIK DESAGERTZERA BIDEAN

“Kantatzea ez dago modan”



Aitor Biain

ABESBATZA ZUZENDARIA

Euskal Abesbatzen tradizioaz, bilakaeraz eta gaur egungo egoeraz hitz egiteko egin dugu hitzordua Aitor Biainekin. Aditua eta aritua izateaz gain, Ganbara Faktorian MONDRAGONEko kooperatibista ugari ere baditu, kantuan dihardutenak. Hain justu, *MONDRAGON At Music* proiektuan ere parte hartu zuen, Oñatin egin zen kontzertua zuzendu zuelarik.

Gabonetako kultura programatzaileek abesbatzak aukeratzeko dituzte sasoi honetarako. Zuk ere izango duzu lana sasoi honetan, edo?

Gabonetan konfliktu itzela izango dut. Bederatzi kontzertu edo hitzordu ditut, bederatzi proposamen ezberdin eta bederatzi talderekin. Moldatuko naiz, baina ez da erraza izango.

Ez dago zuzendaririk hala?

Ez zuzendaririk, ezta harrobirik ere. Egoera kezagarria bizi dute euskal abesbatzek eta kantu tradizioak.

Zein da gaurko panorama?

Euskal Herriko herri askotan daude abesbatzak, komunitate handia da, baina orohar oso arlo amateurra da, elizaren inguruan mugitzen dena. Badira bestelako abesbatza herrikoiak, baina ez dute gazteekin konektatzen. Lurralde lurralde aztertuz gero, egoera oso bestelakoa da. Euskal Herriko abesbatzen erdiak Gipuzkoan daude, Araban ezer gutxi dago eta Bizkaian ere, ez gehiegi.

Badira Euskal Herrian dozena erdi bat lagun abesbatzen arloan ezagunak direnak eta azken urteotan sekulako lana egin dutenak. Horietako bat da Aitor Biain oñatiarra. EHUko Abesbatzako zuzendaria, Oñatiko Ganbara faktoriako arima eta zuzendaria, Easo Abesbatzan gazteak zuzendari izateko formazio berezi baten irakasle eta Oñatiko Bandako zuzendaria. “Euskal Herrian abesbatzen arlotik bizi nahi baduzu, talde bat baino gehiago zuzendu beharra daukazu”, dio Biainek, eta bera da adibiderik argiena.

Euskal Herriko Abesbatzen elkarteak eta Eusko Jaurlaritzak ikerketa bat egin berri dute abesbatzen egoera aztertzeko. Zeintzuk dira ondorio nagusiak?

Nabarmen ikusi da sekulako beherakada dagoela jende kopuruari dagokionez eta hutsune izugarria dago ume eta gazteen artean. Badaude oasi batzuk, herri batzuk, non lanean fin ari diren, baina toki gehienetan beherakada sekulakoa izan da. Pandemiak min handia egin zuen, baina beste faktore asko daude abesbatzen egungo egoera azaltzen dutenak.



Harrobiak ez du funtzionatzen. Nola erakarri daitezke gazteak eta nerabeak?

Badirudi 'gure mundua' ez dela erakargarria gazteen-tzat. Ez dugu konektatzen. Hezkuntzan, ikastetxe eta eskoletan presente egon behar dugu. Kantuzaleak ez ba-

daude hezkuntzan, kantuaeren tradizioa galdu egingo da. Kantatzea ez dago modan. Letonian izan gara orain eta ikastetxe bat bisitatu genuen. Gela bakoitzean piano bat zegoen. Klasean abesten dute. Lehen Hezkuntzan abesten dute, eta Euskal Herrian sekulako tradizioa izan dugu, galdu dena tamalez.

Eta zein izan daitezke gazteak erakartzeko estrategia?

Kantatzera bultzatu behar ditugu. Gipuzkoako federazioetik ari gara hezkuntzan kantua sartu guran. Ikastoletara gure proposamena eraman behar dugu eta ikastoletan kantatzen animatu behar ditugu. Era berean, sare sozialetan agertu behar gara eta telebistan presentzia handiagoa izan behar dugu. Abesbatzen telebista saioa *O happy day* (ETB1) berreskuratu dezakegu, non neska-mutikoak eta haur abesbatzak protagonista ziren. Eta erreperitorio erakargarriak behar ditugu, badugu zer egin arlo horretan.

Etorkizuna?

Beltza ikusten dut etorkizuna. Joera orokorrak kontra ditugu. Jaiotze tasak behera egin du, gizartea orohar eta herritarrak ere gero eta konpromiso txikiagoa hartzeko prest daude, abesbatzen eta musikaren mundua talde berean sartzen gaituzte eta ikasle kopuruak behera egitean banaketan denok galtzen dugu, guk bereziki.

Aipatu duzu badirela herri batzuk non Abesbatzen tradizioak indartsu jarraitzen duen.

Gipuzkoako oasia Errenteria dela esan daiteke. Han oraindik orain ehundik gora gazte eta nerabe dituzte. Oñatin, esaterako, 150 haur eta gazte izan ditugu kantuan, gaur 60 ditugu. Jende asko behar dugu oinarrian, abesbatzak hornitzeko. Gaur egun piramidea alderantziz dago. Kide gehiago dituzte helduen taldeek, formazio faseetan dauden taldeek baino.

Euskal Herritik kanpo badago eredurik?

Katalunia da eredu aproposa. Kulturatik babes handiagoa dute. Gobernuak babes ekonomikoa eskaintzen die. Eta guk baino askoz ere egitura sendoagoa dute. Estrategia bateratua daramate eta igarri egiten da. Euskal Herriaren akatsa izan da ez egitea proiektu komun bat. Bakoitzak bere bidetik egin du eta horrek kalte egin digu. Ez gara batere kooperatiboak izan horretan, ez dugu interkooperatu gure artean, krisiari aurre egiteko ere ez gara elkartzen.

Abesbatzen etorkizunak badu soluziorik?


Berregituraketa sakon bat behar dugu. Saretu behar gara. Gure irudia berritzu. Erakargarri bilakatu. Indartu behar ditugu gure alde onak. XXI. mendera egokitu behar gara, erreperitorioak aldatu behar ditugu, gaur gaurko abestiak kantatu behar ditugu, eta hedabideetan presentzia handiagoa izan behar dugu. —



Denbora-pasak

Sopa de letras¹

Gobernanza: encuentra el nombre de las siete cooperativas que han colaborado en la edición de este año de MONDRAGON TFG/TFM Sariak, patrocinando las siete categorías de premios de la competición.



Crucigrama²

HORIZONTALES

5. “Somos un _____ de MONDRAGON en México”, dice Arturo Alvarado en la entrevista de este número.
8. Nombre de pila de la persona entrevistada en la sección Euskal Kultura en este número de la revista.
9. Revista de Eroski que ha celebrado recientemente su 50 aniversario.
10. Cooperativa ubicada en Bergara (Gipuzkoa) especializada en estampación en frío.

VERTICALES

1. En gobernanza, comité que examina las cuentas anuales de la cooperativa.
2. Centro Tecnológico ubicado en Ordizia y especializado en desarrollo de soluciones innovadoras en fabricación digital e inteligente.
3. Nombre del Certificado de Calidad del Euskera del Gobierno Vasco.
4. “Las cooperativas construyen un _____ mejor”, eslogan del Año internacional de las cooperativas 2025.
6. Cooperativa referente en diseño y producción de mobiliario adaptado para el sector sociosanitario y hotelero.
7. Cooperativa productora de verduras km 0.



1. sopa de letras | 2. crucigrama
 ORBEA | FAGOR | EIKA | IKERLAN | DANOBATGRUP | LABORALKUTXA | MONDRAGON
 HORIZONTALES: 5. PEDACITO | 8. KARMELE | 9. CONSUMER | 10. ECENARRO
 VERTICALES: 1. VIGILANCIA | 2. LORTEK | 3. BIKAIN | 4. MUNDO | 6. GERODAN | 7. BARRENETXE

7 desberdintasun



Parte hartu nahi? Oso erraza da.

Mendirako Columbus produktu sorta zozketa-tuko dugu jeroglifikoa asmatzen dutenen artean.

Eskanea ezazu behean duzun QR kodea eta behin tulankide.com webgunean sartuta bertako galdetegia bete.



Jeroglífico

Cooperativa nacida en 2001 como una iniciativa para articular la intercooperación en compras de las cooperativas.



+



¿Quieres participar? Es muy sencillo.

Sortearemos un **pack de productos Columbus** para la montaña entre las personas que acierten la palabra del jeroglífico.

Escanea el código QR de esta página y una vez que hayas accedido a la página web www.tulankide.com, completa el cuestionario que encontrarás.

Eguberri eta urte berri on!

TU Lankideko Erredakzio Kontseiluak jai zoriontsuak opa dizkizue
El Consejo de Redacción de TU Lankide os desea unas Felices Fiestas



MONDRAGON	 GIZATASUNA LANEAN	Finantzak Industria Banaketa Ezagutza
------------------	---	--